


**Munduko XV. Futbol Txapelketa**

# E Multzoa pil-pilean

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA

Pil-pilean daukagu Mundialeko E Multzoa. Gaur jokatu da hemengo azken jardunaldia eta lau selekzioak, Italia, Mexiko, Hego Irlanda eta Norvegia, bakoitza hiru punturekin ditugu. Gaur Italia-Mexiko eta Hego Irlanda-Norvegia jokatu dira.

Italiak baja garrantzitsuekin egingo dio aurre Hego Irlandaren aurkako partidutik indar berritua dagoen Mexikori. Franco Baresi liberoak, meniskoa hautsita, ezingo du jokatu. Pagliuca atezainari bi partiduko zigorra ezarri diote Norvegiaren kontra areatik kanpo baloia eskuarekin ukitu zuelako. Maldini lateralak, partidu berean, orkatila bihurtu zuen, eta gaur agian ez du jokatzetik izango. Ezta Tassotti eskuin lateralak ere. Beraz, Arrigo Sacchi hautatzaile italiarra atzealde guztiz berri edo ezohizkoarekin aritu beharko da. Dena den, italiarrak esperientzia handiko jokalariek dira eta bai Apolloni zentrala bai Mussi lateralak ongi jokatu dutela espero da.

Norvegiaren kontra 21. minutuan aulkira joan zen Roberto Baggio izango da selekzioko kapitaina. Azken egunotan zalaparta handia sortu du bera kendu izanak Pagliucaren espulzioa zela-eta, baina Sacchi badaki zer egiten duen, eta orduan hamarrek jokatzeko bera egokia ez zela pentsatu baldin bazuen, gaurko partidurako itxaropen handiak ditu berekiko. «Roberto izugarritzko jokalaria da. Partidu

ona egingo duela espero dut. Gainera, Mexikoren kontrako neurketa hobeto datorkio Hego Irlanda edota Norvegiaren kontrakoak baino». Mexikoko entrenatzaileak, bestalde, Hego Irlanda 2-1 gaintu zuen hamakakoa aterako du. Hugo Sanchez, osterera ere, aulkian, beraz.

Hego Irlanda-Norvegiari dagokionez, Jack Charlton hautatzaile hegoirlandarrak ezingo du bere taldea aulkitik zuzendu, FIFAk partidu bateko zigorra ezarri diolako. Gainera, Irwin eta Phelan-en bajak izango ditu, bi txartel horierekin daude eta.

## 17 URTEKO RONALDAREN DEBUTA?

B Multzoak ere bere amaiera izango du gaur Brasil-Suedia eta Errusia-Kamerun partiduekin. Brasil jadanik sailkatua dugu, eta agian Parreira hautatzaileak Ronaldo hamazazpi urteko aurrelariari minutu batzuk emango dizkio. Izugarritzko ikusmina omen dago Brasilen bera ikusteko, Pele —berak ere 17 urterekin egin zuen debuta Mundialean— berria deitzen diote-eta. Bigarren postua Suedia eta Kamerunen artean egongo da, bigarren honek aukera gehiago dituelarik, Suediak Brasil gaintzea zaila baita; Kamerunek Errusia ez. Hala ere, Kamerunen tentsio handia dago, batez ere, Brasilen kontra 3-0 galdu eta gero. Bell atezainak futbola utzi egin du. Bera kentzeko presio handia zegoen Kamerunen. Henri Michel entrenatzaileak «etikarengatik» ez du aurkeztu dimisioa.

mundiala!


JOSU LANDA

## Joko garbia

Bide onetik abiatua zirudien fairpleiak. Hasierako partiduetan, arbitroei gehiegizko zorrotasuna ere kritikatu zitzairen apur bat, txartel gehitxo eta. Egia aitortzeko, jokoa inoiz baino garbiagoa izan zen. Sarrera bortitz gutxi, horietako bakoitzak txartel bana jaso arren.

Txapelketak aurrera egin ahala, hasierako garbitasuna lausotuz joan da eta jokalariek asko, hurrengo fasera sailkatzeko aukerak galdu ahala, bestelako gogortasuna erabiltzen hasi dira. Amorruek eta inpotentziak piztutako indar ezkutuek, aizkorakadak eta segadak alegia. Azken batean, hasierako joko garbiaren zergatia azaldu zaigu pixkanaka. Dirudienek, jokalariek ez zuten, mundialeko hiru partidutan parte hartzeko ahalmena izaki, txartelen erruagatik horietako bat edo bi galdu nahi. Eta txartel kontuetan agindutako erizpide estuaren usainean, denak zintzo-zintzo.

Arbitroek, bitartean, irribarre maltzur eta prepotenteaz behatzen diete futbolariari, eskolako irakasleek edo kaleetako poliziek bezala, jakin badakite futbolearen ere betiko legeak agintzen duela: mehatxua eta zigorra.



Henrik Larsson jokalaria suediarra.

EFE

18.30 - TVE1 (Dif.) - TF1

HEGO IRLANDA	NORVEGIA
Jack Charlton	Egil Olsen
1 Bonner	1 Thorstvedt
12 G. Kelly	18 Haland
14 Babb	4 Bratseth
5 McGrath	5 Bjornebye
13 Kernaghan	3 Johnsen
8 Houghton	6 Flo
7 Townsend	7 Mykland
6 Keane	8 Leonhardsen
11 Staunton	22 Bohinen
10 Sheridan	9 Fjortoft
15 Coyne	21 Rushfeldt



**Arbitroa:**  
Jose Joaquin TORRES  
Kolonbia  
52-7-15  
Enpleatua

**Marrazainak:** Paulo Jorge Alves (Brasil) eta Hae Yong Park (Heogo Korea).

**Zelaia:** Giants Stadium (New York).

22.00 - ETB1 - TF1

BRASIL	SUEDIA
C. A. Parreira	T. Svensson
1 Taffarel	1 Ravelli
2 Jorginho	2 Nilsson
13 Aldair	3 P. Andersson
15 Santos	4 Bjorklund
16 Leonardo	5 Ljung
8 Dunga	11 Brolin
10 Rai	6 Schwarz
5 Mauro Silva	9 Thern
9 Zinho	8 Ingesson
7 Bebeto	19 K. Andersson
11 Romario	21 Blomqvist



**Arbitroa:**  
Sandor PHUI  
Hungaria  
55-7-14  
Zuzendaria

**Marrazainak:** Sandor Marton (Hungaria) eta Luc Matthys (Belgika).

**Zelaia:** Pontiac Silverdome (Detroit)

18.30 - TVE1 - TF1

ITALIA	MEXIKO
Arrigo Sacchi	M. Mejia Baron
12 Marchegiani	1 Campos
3 Benarrivo	20 Rodriguez
2 Apolloni	2 Suarez
4 Costacurta	3 J. Ramirez
8 Mussi	14 Del Olmo
14 Berti	4 Ambriz
13 D. Baggio	6 Bernal
11 Albertini	8 Garcia Aspe
10 R. Baggio	11 Zague
18 Casiraghi	10 Luis Garcia
20 Signori	7 Hermosillo



**Arbitroa:**  
Francisco LAMOLINA  
Argentina  
50-10-25  
Enpleatua

**Marrazainak:** E. Carlos Taibi (Argentina) eta Eugene Brazzale (Australia).

**Zelaia:** R. Fitzgerald Kennedy (Washington).

22.00 - TVE1 (Dif.) - TF1

ERRUSIA	KAMERUN
P. Sadryin	Henri Michel
16 Kharin	21 Nkono
6 Ternavski	14 Tataw
5 Nikiforov	13 Kala
21 Khlestov	15 Agbo
10 Karpin	6 Libih
18 Onopko	17 Foe
20 Lediakhov	8 M'bouh
19 Mostovoi	10 Mfede
13 Borodiuk	7 Oman-Biyick
15 Radtzenko	19 Embe
9 Salenko	9 Milla



**Arbitroa:**  
Jamal AL SHARIF  
Siria  
56-12-6  
Funtzionaria

**Marrazainak:** Gordon Dunster (Australia) eta Jan Dolstra (Holanda).

**Zelaia:** Stanford Stadium (San Francisco).

## Kolonbia lehen biktima

Pello Aiestaran

Bada, ez da mirarik gertatu. Kolonbiak hurrengo fasera sailkatzeko aukera txikiren bat bazuen azken jardunaldian, baina zoritxarrez ezin izan du aurrera segitu. Mundial honetako aurreneko biktimak izan dira kolonbiarrak, merezimendu osoz gainera. Faborito bezala ailegatu ziren Mundialean, eta atzeko atletik joan dira. Hori bai, tartean zeresan ugari emanez: heriotza mehatxuak, Errumaniaren kontrako porrot izugarria, Maturanaren dimisio saioa...

Niri pena handia ematen dit Kolonbiarekin gertatu dena. Ez naiz inoren *forfoa*, partidu onak ikustea beste helbururik ez dut, eta uste dut Kolonbia nik nahi dudan hori eskaintzeko moduko taldea dela. Egoera normal batean behintzat. Tristeena zera da, futbol talde batek egoera normal batean ezin jokatu izana. Politikoa, mafiak eta antzekoak tartean sartzen direnean ezin da ezer onik gertatu. Hor dugu adibidea.

Espero dut erratuta egotea, baina Mundialek kanpo gertatzea Kolonbiako selekzioari gertatuko zaion gauzarik larriena ez delako susmoa daukat. Orain etorriko da okerrena. 'Barrabas' Gomezek jadanik esan du futbola utzi egingo duela, egoera honekin erabat nazkatuta. Ez naiz harritzen, eta ez nintzateke harrutuko besteren batek bide bera jarraitzea erabakitzen badu ere. Pacho Maturanak selekzioa utzi egingo du, Atletico de Madrideko entrenatzaile bihurtzeko. Eta ez ahaztu bera izan dela selekzio honen 'aita'. Hernan Dario Gomez bigarren teknikoak selekzionatzaile bihurtzea onartuko duenentz ikusteke dago... Gainera, Mundialean hain lan kaskarra egiteak nazioarteko futbolearen eragiten duen kredibilitate galera dago. Hainbeste urtetan lan gogorra egin, eta horretarako, futbolaz kanpoko gaiek guztiarekin astebete eskasean amaitzeko. Kolonbiak orain arteko bidetik segituko duen itxaropena agertu du Pacho Maturanak: «Ez da pozik egoteko, baina lasai joan gaitzake, lanean segitu eta beti lortu nahi izan ditugun helburuak lortzeko harrobi sendoa baitago». Hori espero dut, baina ez nago hain ziur.

Roman Kosecki aurrelariak Poloniako telebistan esan omen zuen, Mundialari buruzko programa batean: «Kolonbiak talde onenek beste izar baditu, baina aurkariak gaintzeko borondatea falta izan zaio». Borondaterik gabe nola egin daiteke ezer onik?